

Ohm (Om) 13 Beñat Antxustegi

*Zaude isil, itxi begiak,
hanka hutsik zelaian behiak.
Eta horrela bide honegaz
txoriek diote behar dena.
"Azala dela, azala zela bala"*

*Eternitatea hautsi
ideiez kolpatuz hil.
Eternitatea hautsi
ideiez kolpatuz (om)*

Begi isilez, ba al da aurpegia?

*Borobilean zeuden jarrira
karratuaren mugak galduz.
Maiz erresonarazi den tinta
listutuz zizareek gosaldu.*

*Ergela baita letraz janztea.
Bherrirakurtzerako trantzea.
Momentu hutsalak bizitzea.
Lañarri, Mari eta kea.*

*Zaude isil, itxi begiak,
hanka hutsik zelaian behiak.
Eta horrela bide honegaz
txoriek diote behar dena.
"Azala dela, azala zela bala"*

*Eternitatea hautsi
ideiez kolpatuz hil.
Eternitatea hautsi
ideiez kolpatuz...*

TIRO

Iñar Sastre

*Maitasunaren izenean gorrotoak harrapatu nau.
Otso larrua usteldu zait eta barrua ustelago dut.
Erantzuna badut, baina ez naiz ausartzen galdera egiten.*

*Baina tiro, tiro egin nuen.
Bihotza ozpindu zait, azala lakaztu,
eusten nauten saiheitsak desagertuz doaz.*

*Eskatuko dudan guztia, hilobian atsedena hartzea,
zuek gerturatzean krabelin bat pausatzea,
zuek etxeratzean zuekin bueltatzea, arnas izatea.*

*Baina tiro, tiro egin nuen.
Bihotza ozpindu zait, azala lakaztu,
eusten nauten saiheitsak desagertuz doaz.*

Nintzen, omen naiz, eta ez dakit izango naizen.